

# “UNICHOOSE”

## **IDEIA**

Proiektuaren ideia nagusia Euskal Herriko unibertsitateetan eskaintzen diren gradu ezberdinen informazioa laburbiltzea eta horietara sartzeko beharrezkoa den batez besteko gutxieneko nota zein den biltzen duen aplikazio bat sortzea da.



Lehenik eta behin, esan beharra dago, aplikazioa erabiltzeko erregistratzea beharrezkoa dela, bai komentarioak egiteko (bakoitzak egindako graduei buruz, adibidez), bai informazioa bilatzeko.

Aplikazio hau hainbat atalez osatuta egongo da, lehenengo atalean, Euskal herriko unibertsitateen informazioa aurkitu dezakegu, hau da, publikoak, pribatuak, haien arteko desberdintasunak, bertan dauden graduak... agertuko da.

Bigarrenean, graduen informazioa, hau da, karreraren urte kopurua, non ikasten den, ikasgai kopurua, beste ikasle batzuek baloratutako ikasgaien zailtasun maila, batez besteko nota...

Atal honen barruan beste atal bat egongo da, non pertsona bakoitza egindako graduaren komentarioak edo azalpenak igotzeko aukera emango duen, edota bideoak igo bakoitzak bere esperientzia kontatzen edo zalantzak argitzen. Lehen esan bezala horretarako erabiltzailea erregistratu beharko da.

Hirugarren atalean, zein gradu egin ondo ez dakiten horientzat zuzenduta egongo da, bertan test bat egiteko aukera izango dute bakoitzaren zaletasunak, denbora, trebezia... ebaluatuko duena. Test horri baliagarria izango da zein gradu egin orientatzeko.

Aplikazio hau, gradu (karrera) bat egin nahi duten edozein pertsoneri zuzenduta dago. Batez ere, esan dezakegu 2 batxilergoan dauden ikasleei zuzentzen dela, baina bigarren gradu bat egin nahi dutenak ere izango dira gure bezero.

Bestalde, diseinu erraza, ulergarria, erabiltzea beharrezkoa da, aplikazioa eta web orria egokia izateko, hau da, erraza eta praktikoa, nahi duten informazioa ondo aurkitzeko eta ulertzeko baina batez ere, edozein urteko pertsona erabili ahal izateko.